

[EUSKAL AEko TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA \(BMIT\). 2010eko 4. hiruhilekoa](#)

Euskal AEko txikizkako sektoreko salmentak %0,1 jaitsi ziren 2010eko laugarren hiruhilekoan

2010 urtean, salmenten igoera %1,2koa izan zen termino nominaletan

Eustatek emandako datuen arabera, 2010eko laugarren hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmenta nominalak %0,1 jaitsi ziren, aurreko ekitaldiko hiruhileko berdinarekin aldean.

Gasolindegia sartu gabe, sektoreko salmentak %1,5 jaitsi ziren urte artekoan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean salmenta-indizea %0,1 nominala hazi da, urtarotik eraginak kenduta.

1. taula. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. Egutegi-eragin zuzendua daukaten datuak

Urtea	Hiruhilekoa	Euskal AE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
2009	I	-9,6	-14,0	-8,0	-9,9
	II	-6,3	-10,3	-5,3	-5,9
	III	-4,3	-8,8	-5,3	-0,8
	IV	-2,5	-3,6	-2,3	-2,2
2010	I	5,2	3,4	4,7	6,6
	II	1,6	1,9	0,3	3,4
	III	-1,5	-1,2	-1,4	-1,8
	IV	-0,1	1,3	-1,0	0,7

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeoko txikizkako Barne Merkataritzaren Indizea

Sektoreka, txikizkako merkataritza espezializatuan %0,6 jaitsi dira salmenta nominalak 2010eko laugarren hiruhilekoan, eta espezializatu gabeen %0,4 igo 2009ko aldi beraren aldean.

Txikizkako espezializatuan Kontsumoko beste ondasunak nabarmentzen dira: %5,2ko hazkunde nominala. Barne daude gasolindegia, ekipamendu informatikoa eta kirol artikulak, besteren artean. Etxeko ekipamenduetan %9,0ko jaitsiera dago aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Elikadura-produktuetan eta Pertsonaren ekipamenduan %3,0ko jaitsiera bi kasuetan.

Txikizkako merkataritza ez-espezializatuaren arloan, elikagaiak nagusi diren azpisektoreetan %0,3koa izan da urte arteko salmenten igoera. Gainerako produktuak nagusi diren azpisektoreek %0,2koa izan dute.

Txikizkako sektoreko salmenta nominalak %1,0 jaitsi dira Bizkaian urte artean; Araban %1,3 hazi eta Gipuzkoan %0,7.

Prezio finkoetan, txikizkako merkataritzaren salmentak %2,6 murriztu dira laugarren hiruhilekoan.

Txikizkako salmentek -gasolindegia sartu gabe- %2,4ko jaitsiera erreala izan dute aurreko urtearen aldean.

Txikizkako merkataritza espezializatuaren jaitsiera erreala %3,3 da, eta ez-espezializatuan %1,2koa, 2009ko hiruhileko beraren aldean.

Txikizkako merkataritza espezializatuan urte arteko erreala negatiboa izan da sektore guztietan. Etxeko ekipamenduan %10,1eko jaitsiera; Elikagai-produktuetan %4,4; Pertsonaren ekipamenduan %2,5 eta Kontsumoko beste ondasunetan %1,9.

Txikizkako ez-espezializatuan, euro finkoetan, elikagaiak nagusi direnetan %1,0ko jaitsiera dago eta %2,3koa gainerako produktuak nagusi direnetan.

Euskal AE osoan, 2010eko laugarren hiruhilekoaren aldean, txikizkako merkataritzako sektorean landunen kopurua %0,5 murriztu da 2010eko hirugarren hiruhilekoaren aldean.

2010ko urteko balantzea

Urte osoan, txikizkako merkataritzaren salmentek %1,2ko igoera nominal metatua izan dute. Gasolindegia sartu gabe, gainerako salmentetan ez dago aldaketarik (%0,0), 2010eko datu metatuetan 2009koen aldean.

Termino errealetan, sektorea osorik %0,6 jaitsi da eta gasolindegirik gabe %0,3.

Urte osoan, tasa nominaletan, Gipuzkoan %2,1eko igoera dago, Araban %1,4koa, eta Bizkaian %0,6koa. Termino errealetan: Gipuzkoan %0,0, Araban %-1,8 eta Bizkaian %-0,7.

Aurreko urteko batez bestekoaren aldean, txikizkako merkataritza sektoreko enpleguak izan zuen hazkundera %0,2koa izan zen; lurraldeka: Bizkaian %1,4; Araban %-2,4 eta Gipuzkoan %-0,5.

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko datu-bankua](#)